



M<sup>a</sup> Socorro Equiza Equiza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuko idazkari teknikoak

#### **ZIURTATZEN DUT:**

**Foru Aldundi honetako Diputatuen Kontseiluak, 2020ko azaroaren 3an egindako batzarraldian, ondoko erabakia hartu zuela:**

"Diputatuen Kontseiluaren 2020ko uztailaren 28ko erabakiaren bidez, behin betikotzat jo zen honako kontratazio espediente honen bideragarritasun azterlana: Irungo Arbes auzoan gizarte zerbitzuen zentro baten proiektua idazteko, zuzendaritza fakultatiboa egiteko, eta zentro hori eraiki, hornitu eta ustiatzeko proiektuaren obra-emakida.

Halaber, bilkuraren egun berean onetsi ziren Irungo Arbes auzoan gizarte zerbitzuen zentro baten proiektua idazteko, zuzendaritza fakultatiboa egiteko, eta zentro hori eraiki, hornitu eta ustiatzeko obren emakida kontratatzeko espedientea (esp.: 2020/00050), eta lizitazioa arautuko zuten administrazio klausula partikularren agiria eta baldintza teknikoaren agiriak, eta esleipen prozedura irekia abiarazi zen.

Lizitazio iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) eta kontratatzailearen profilean argitaratu zen, 2020ko abuztuaren 12an.

Puntu honetara iritsita, eskaintzak aurkezteko fasean egonik prozedura eta, beraz, kontratua esleitu aurretik, premiazko eta bat-bateko arrazoiak direla medio, lizitatutako kontratua urrun dago hasieran zeuden eta lizitazioaren oinarritzat hartu ziren premiei erantzutetik.

COVID-19aren pandemiaren hedapen orokortuak eta, bereziki, gertatzen ari diren berragertzeak eragindako osasun publikoko larrialdi egoerak eraginda, berriki onetsi da urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretua, berriz ere alarma-egoera deklaratzeko duena.

COVID-19ak eragindako infekzioak hedatzea saihesteko hartutako erabaki zehatzez harago, pandemia horrek duen eragina dela eta –are gehiago adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen artean–, ezinbestean birplanteatu behar da 2020ko urtarrilean egindako proiektuaren beharrezko azterketa eta horien egokitasuna, horiek zenbatetsi baitziren, bereziki, mota horretako zentroen espazio fisikoen definizioa eta egituraketa aintzat hartuta.

M<sup>a</sup> Socorro Equiza Equiza, Secretaria Técnica del Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa

#### **CERTIFICO:**

**Que el Consejo de Gobierno Foral de esta Excma. Diputación Foral, en sesión de 3 de noviembre de 2020, adoptó el siguiente acuerdo:**

"Mediante acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 28 de julio de 2020, se procedió a elevar a definitivo el estudio de viabilidad referido al expediente de contratación de la concesión de obras para la redacción del proyecto, dirección facultativa, construcción, equipamiento y explotación de un centro de servicios sociales en el barrio Arbes de Irun.

Asimismo, en la misma fecha de sesión, se aprobó el expediente de contratación de la concesión de obras para la redacción del proyecto, dirección facultativa, construcción, equipamiento y explotación de un centro de servicios sociales en el barrio de Arbes de Irun (Expte. 2020/00050), así como el pliego de cláusulas administrativas particulares y los pliegos de prescripciones técnicas que regirían la licitación y se dispuso la apertura del procedimiento de adjudicación abierto.

El anuncio de licitación se publicó en el Diario Oficial de la Unión Europea (DOUE) y en el perfil de contratante el 12 de agosto de 2020.

Llegados a este punto, encontrándose el procedimiento en la fase de presentación de ofertas y, por lo tanto, previamente a la adjudicación del contrato, razones imperiosas y sobrevenidas hacen que el contrato licitado se halle lejos de responder a las necesidades inicialmente existentes y en base a las que se licitó.

La generalizada extensión de la pandemia de la COVID-19 y, en especial, la situación de emergencia de salud pública generada por los rebrotes que se están produciendo han llevado en fechas recientes a aprobar el Real Decreto 926/2020, de 25 de octubre, por el que se declara nuevamente el estado de alarma.

Más allá de las decisiones concretas adoptadas para evitar la propagación de infecciones causadas por la COVID-19, la afectación de esta pandemia -más si cabe en el colectivo de personas mayores y personas con discapacidad-, hace inexorablemente necesario replantear el estudio de necesidades del proyecto elaborado en enero de 2020 y su idoneidad que en su día fueron estimados, especialmente en la definición y configuración de los espacios físicos de esta tipología de centros.

Osasunaren Mundu Erakundeak eta Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluak eta Osakidetzak adierazitakoarekin bat etorri, pandemiaren kontrol egoera berriak beharrezko egin du biztanleria osoari eta, bereziki, adinekoei eta desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako neurri sozial eta osasun publikoko neurri berriak hartzea.

Ilido horretan, zalantzarik gabe, neurri horiek, egoera koiuntural bati emandako erantzuntzat hartu ordez, denboran iraungo duten ondorioak izango dituzten aldaketak dakartzate. Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru eskumeneko gizarte zentroetan osasun publikoaren babes handiena bermatzeak lehen tasun bihurtu behar du proiektatu nahi diren zentro berrien konfigurazioan.

Neurri berriak hartzeak zuzenean eragiten dio gure lurraldean orain arte garatu den egoitzako gizarte zentroen egoitza-ereduari.

2020ko urriaren 27an Ikuskapeneko, Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko Zerbitzuak egindako txostenak agerian uzten du, COVID-19aren inpaktua ikusita, arkitektura-eredua berrikusi behar dela azalaren diseinuari eta antolaketari dagokienez, eta guztizko kostua behar berrietara egokitu.

Horrela, pandemia agertu aurretik egin zen azterlanari dagokionez, ezinbestekoa da kontratuaren beharren definizioa birplanteatzea; beraz, ezinbestekoa izango da preskripzio teknikoaren agerian eskatzen diren eraikuntza-obretarako kalkulaturako kostuak aldatzea. Era berean, erabiltzaileak egoitza-zentroetan elkartzea saihesteko eta espazioak sektorizatzeak hartu behar diren neurri berriak eragina izango dute egoitza-arretaren kostuetan.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, 152.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, beharrezkotzat jotzen da prozeduran atzera egitea onartzea, hargatik eragotzi gabe beharizan berrien definizioari egokitutako kontratazio espediente berri bat bideratzea.

Laburbilduz, ondorioztatu behar da beharizanen azterketa egungo errealitatez ez egokitzeak kontratazio hau baliogabetzen duela, dituen akatsak ezin baitira zuzendu egungo lizitazio prozeduran.

Hori dela eta, Diputatuen Kontseiluak, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

**ERABAKITZEN DU**

De conformidad con lo señalado por la Organización Mundial de la Salud así como por el Consejo Interterritorial del Sistema Nacional de Salud y del Servicio Vasco de Salud, el nuevo escenario de control de la pandemia obliga a adoptar nuevas medidas sociales y de salud pública dirigidas al conjunto de la población y, en particular, al colectivo de personas mayores y personas con discapacidad.

En este sentido, resulta indudable que estas medidas, lejos de considerarse respuestas a una circunstancia coyuntural, están trayendo consigo unos cambios cuyos efectos van a perdurar en el tiempo. Garantizar la máxima tutela de la salud pública en los centros sociales de competencia foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa se debe convertir en la prioridad en la configuración de los nuevos centros que se pretendan proyectar.

La adopción de las nuevas medidas afecta directamente al modelo residencial de centros sociales residenciales que hasta la fecha se ha desarrollado en nuestro territorio.

El informe emitido con fecha 27 octubre de 2020 por el Servicio de Inspección, Inversiones e Iniciativa Social, evidencia que a la vista del impacto de la COVID-19, es necesaria la revisión del modelo arquitectónico en cuanto al diseño y organización de superficies con la consiguiente adecuación de su coste total.

Así, en lo que respecta al estudio que fue elaborado con anterioridad a la irrupción de la pandemia, resulta imprescindible replantear la definición de las necesidades del contrato, por lo que será imprescindible modificar los costes calculados para las obras de construcción exigidos en el pliego de prescripciones técnicas. Asimismo, las nuevas medidas que deberán adoptarse para evitar la agrupación de personas usuarias en los centros residenciales y para sectorización de espacios, afectarán a los costes en la atención residencial.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 152.4 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, se considera necesario aprobar el desistimiento del procedimiento, sin perjuicio de instruir un nuevo expediente de contratación acomodado a la definición de las nuevas necesidades.

En resumen, cabe concluir que la falta de adecuación a la realidad actual del estudio de necesidades invalida la presente contratación al no resultar subsanables sus defectos en el curso del actual procedimiento de licitación.

En virtud de todo lo expuesto, el Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación y a propuesta de la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales,

**ACUERDA**

**Lehenengo.-** Atzera egitea Irungo Arbes auzoko gizarte zerbitzuen zentro baten proiektua idazteko, zuzendaritza fakultatiboa egiteko, zentro hori eraiki, hornitu eta ustiatzeko obra-emakidaren kontratua esleitzeko prozeduran (esp.: 2020/00050), akordio honen azalpen zatian adierazitako arrazoiengatik.

**Bigarren.-** Erabaki hau kontratatzailearen profileen argitaratzea eta Europako Batzordeari horren berri ematea, EBAOn iragarrita.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesdunek Donostian dauden administrazioarekiko auzietako epaitegietan, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Nolanahi ere, lizitazio iragarkiaren aurka nahiz baldintza administratibo berezien eta ezaugarri teknikoaren orrien aurka KONTRATAZIO ALORREKO HAUTAZKO ERREKURTSO BEREZIA aurkez daiteke bakarrik administrazioarekiko auzi errekurtsorekin aurretik, Kontratazio alorreko errekurtsoretarako Foru Auzitegi Administratiboari, iragarkia argitaratu edo orri horiek jaso edo eskuragarri jarri ziren egunaren biharamunetik hasita 15 laneguneko epean. Bi kasuetan, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen edo bereziaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.”

**Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut Donostian, 2020ko azaroaren 5ean.**

**Primero.-** Desistir del procedimiento de adjudicación del contrato de la concesión de obras para la redacción del proyecto, dirección facultativa, construcción, equipamiento y explotación de un centro de servicios sociales en el barrio de Arbes de Irún (Expte. 2020/00050), por los motivos expresados en la parte expositiva del presente acuerdo.

**Segundo.-** Disponer la publicación del presente acuerdo en el perfil de contratante e informar del mismo a la Comisión Europea mediante el preceptivo anuncio en el DOUE.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En todo caso, contra el anuncio de licitación y los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas sólo cabe interponer, previa y potestativamente, el RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN ante el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales en el plazo de 15 días hábiles a partir del día siguiente a aquél en que se haya publicado el anuncio o se hayan recibido o puesto a disposición los pliegos. En ambos casos, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o el especial, o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.”

**Y para que conste, extendiendo la presente certificación en San Sebastián, a 5 de noviembre de 2020.**



